



PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/11

Etorkizuneko turismoa eta El Karpin zentroaren egungo egorea izan dira Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordearen protagonistak

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordearen aurrera etorri da gaur, Arturo Aldecoak (Talde Mistoa) eskatuta, Bilbao-Bizkaia 2018-2025 Turismo Ekintza Planaren estrategiak, neurriak eta helburuak azaltzeko. Datozan zazpi urteetan gauzatuko dan proiektu horrek zentratu dau Batzordearen bileraren lehenengo parte. Bigarren partean, Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabal batzordekideak aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu eta bozkatu da, Karpin Fauna Basatiaren Babes Parkerako sarbideak hobetu eta aparkalekuak hobeto antolatu eta aurreikusitako eskariari erantzuteko gune barriak sortu daizala eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari.

Pradalesek Bilbao Bizkaia Turismo Ekintza Planaren ildo estrategikoak azaldu deutsez Batzordeko kideei. Bertan, turismoagaz erlasionautako erakunde publiko eta pribaduetako 268 eragilek hartu dabe parte. Pradalesek 2018an izandako datu onak azpimarratu ditu. Lehen aldiz, bisitarien batez besteko egotaldiak gau bira heldu dira, eta turismoak geure lurraldean izan dauen eragin ekonomikoa 1.903 milioi euroraino heldu da, hau da, BPGren %5,3.

Turismoaren hazkunde eutsia, iraunkorra eta kualitatiboa dira 2025eko zerumuga dauen Bilbao Bizkaia Turismo Ekintza Planaren hiru helburu nagusiak, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Foru Diputatuak azpimarratu dauenez. Zifratan, Plan horren helburua, datozen 7 urteetan turistaren sarrerak 1,7 milioitik 2,4 milioira igotzea da, eta bertan igaroko daben gau kopurua 3,4tik 5 milioira. Gastuari jagokonez, gaur egungo 297 eurotik 365 eurora igotzea lortu gura da estadu barruko turismorako, eta 398 eurotik 510 eurora atzeritik datorren turismorako. Hori lortzeko, turismoaren sustapenerako sei produktu programa eta 87 jarduketa diseinatu ditu Planak.

Karpin

Batzordeak, Podemos Bizkaia taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu eta bozkatu dau, “Karpin Fauna Basatiaren Babes Parkerako irisgarritasuna eta inguruko mobikortasuna hobetu daizala” eskatzeko Bizkaiko Foru Aldundiari, “sarbideak hobetuz eta inguruan aparkalekuak hobeto antolatuz eta gune barriak egokituz, aurreikusten dan eskariari erantzuteko”. Proposamena aurkeztu dauen taldearen izenean, Josean Elgezabalek zentro horrek gizartearen eta ingurumenaren ikuspegietatik egiten dauen ekarpena azpimarratu dau. 2017an 44.800 bisita baino gehiago jaso ebazan, eta igaz 45.300 baino gehiago. Esan dauenez, penagarria da “Aldundiak Karpinen garapenean erakusten dauen inplikazio falta nabarmena”.

Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek zuzenketa-eske bateratua aurkeztu dabe, testua aldatzeko eta Foru Aldundiari “Enkarterriko Udalerrien Mankomunidadeagaz lankidetzan aritu daijala” eskatzeko, aitatutako helburu horreek lortzeko, Mankomunidade hori dalako “Karpin Fauna Basatiaren Babes Parkearen jaubea”.

Eztabaidaren ostean, Podemos Bizkaia taldeko Elgezabalek ez dau onetsi zuzenketa-eskea, Mankomunidadeak Karpinen garapenean erakutsi dauen inplikazio faltea azpimarratuz eta “Enkarterriko Mankomunidadeko presidentek konbiteari uko egin eta danok, aho batez, bera ona etortea eskatu genduanean, Batzorde honetara ez etortea erabagi ebala” gogoratuaz. Elgezabalek “Karpin lehentasuna ez izatea” kritikatu dau. “Funtsezkoa ez da ekimenak planteatea, borondate politiko faltea baino”, adieraztu dau.

Josu Montalbánen (Euskal Sozialistak) eretxiz, Podemos Bizkaiaren proposamena “interesgarria” da, baina “derrigorrez parte hartu behar dauen erakundea Enkarterriko Mankomunidadea dala” nabarmendu dau. Aitor Ibarak (Euzko Abertzaleak) be nabarmendu dauenez, “hobekuntza horreek guztiak Enkarterriko Mankomunidadeak eskatu behar ditu, eta ez Aldundiak”.

“Ez dago geure artean Karpinen gaiak baino denpora gehiago daraman gai askorik”, esan dau hasteko Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa), eta horren ostean “edozein jarduketa horregaz ados egonda egin behar dala” gehitu dau. Bizkaiko Talde Popularraren izenean aritu dan Jesús Isasik azpimarratu dauenez, zentroak “120 bisitari jasoten ditu egunean batez beste”, eta Karpineko sarbideak eta apartakalekuak hobetzearen alde agertu da, baina Enkarterriko Mankomunidadea kontuan izanda.

Zigor Isuskizak (EH Bildu), bere aldetik, Bizkaiko Foru Aldundia eta Enkarterriko Mankomunidadea alderdi politiko berekoak dirala azpimarratu dau. “EAJ-PNVk ez dau Karpinen garapenaren aldeko apustu sendorik egiten. Aitzakia guztien ganetik, ikusten da ez dagola parkea behar dan moduan garatzeko asmorik”, esan dau bukatzeko.

Eztabaidaren ostean Arauz Bestekeko Proposamena bozkatu da, baina ez da onetsi, aldeko boto bakarrak Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeenak izan diralako. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek kontra bozkatu dabe, eta Bizkaiko Talde Popularra eta Talde Mistoa abstenidu egin dira.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
11/03/2019

El turismo del futuro y la situación actual de El Karpin protagonizan la reunión de la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia

Imanol Pradales, Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial, ha comparecido hoy ante la Comisión de Desarrollo Económico y Territorial de las Juntas Generales de Bizkaia para explicar, a petición de Arturo Aldecoa (Grupo Mixto), las estrategias, medidas y objetivos del Plan de Acción de Turismo Bilbao Bizkaia 2019-2025. Este proyecto, que se desarrollará en los próximos siete años, ha centrado la primera parte de la reunión de la Comisión, que en su segundo y último punto del orden del día ha debatido sobre una Proposición No de Norma, presentada por Josean Elgezabal, apoderado del grupo Podemos Bizkaia, para instar a la Diputación de Bizkaia a mejorar los accesos y reordenar los aparcamientos del Centro de Acogida de Fauna Silvestre El Karpin, así como a crear nuevos espacios para dar respuesta a la demanda prevista.

Pradales ha explicado a los y las vocales de la citada Comisión las líneas estratégicas del Plan de Acción de Turismo Bilbao Bizkaia, en el que han participado 268 agentes de entidades públicas y privadas relacionadas con el turismo. Pradales ha destacado los buenos datos registrados en 2018, un año en el que por primera vez la estancia media de visitantes alcanzó las dos noches y en el que el impacto económico del turismo en nuestro territorio aumentó hasta los 1.903 millones de euros, lo que supone un 5,3% del PIB.

El crecimiento sostenido, sostenible y cualitativo del turismo son los tres objetivos principales del Plan de Acción de Turismo Bilbao Bizkaia con horizonte en 2025, ha destacado el Diputado Foral de Desarrollo Económico y Territorial. En cifras, el citado Plan pretende en estos próximos 7 años aumentar el número de entradas de 1,7 a 2,4 millones y el número de pernотaciones de 3,4 a 5 millones. Respecto al gasto, el objetivo es que crezca de los 297 euros actuales a 365 euros para el turismo estatal y de los 398 euros a los 510 euros para el turismo procedente del extranjero. Para conseguirlo, el Plan ha diseñado seis programas de productos y 87 actuaciones de promoción turística.

El Karpin

La Comisión ha debatido y votado una Proposición No de Norma presentada por el grupo Podemos Bizkaia para instar a la Diputación “a mejorar la accesibilidad y movilidad alrededor del Parque de Conservación de fauna silvestre de El Karpin mediante la mejora de los accesos por carretera y la reordenación de los espacios de aparcamiento en el entorno del centro y la adaptación de nuevos espacios para dar respuesta a la demanda prevista”. Josean Elgezabal, en nombre del grupo proponente, ha destacado la contribución socioambiental de este centro, que recibió más de 44.800 visitas en 2017 y más de 45.300 el año pasado y ha lamentado el “notorio déficit de implicación por parte de la Diputación” en el desarrollo de El Karpin.

Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han presentado una enmienda conjunta para cambiar el texto e instar a la Diputación Foral “a colaborar con la Mancomunidad de Municipios de las Encartaciones” en los citados objetivos, al ser la citada mancomunidad “la propietaria” del Centro de Conservación de fauna silvestre El Karpin.

Tras un debate, Elgezabal, en representación de Podemos Bizkaia, ha rechazado la enmienda destacando la falta de implicación de la Mancomunidad en el desarrollo de El Karpin y recordando que “la presidenta de la Mancomunidad de Enkarterri declinó la invitación y no acudió a esta Comisión cuando pedimos su comparecencia por unanimidad”. Elgezabal ha criticado que El Karpin no sea una prioridad. “La clave no es tanto plantear iniciativas como la falta de voluntad política”, ha señalado.

Josu Montalbán (Socialistas Vascos) ha calificado de “interesante” la propuesta de Podemos Bizkaia pero ha incidido en que “la entidad que obligatoriamente tiene que estar presente es la Mancomunidad de Enkarterri”. En el mismo sentido, Aitor Ibarra (Nacionalistas Vascos) ha destacado que “todas estas mejoras deben ser pedidas por la Mancomunidad de Enkarterri y no por la Diputación”.

“Pocos temas tan antiguos como El Karpin”, ha comenzado diciendo Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) para añadir que “depende de la Mancomunidad y cualquier actuación hay que hacerla de acuerdo con ella”. Jesús Isasi, en representación de Grupo Popular Vizcaíno, ha destacado que el centro “tiene de media 120 visitantes cada día” y se ha mostrado favorable a mejorar los accesos y aparcamientos de El Karpin, pero contando con la Mancomunidad de Encartaciones.

Zigor Isuskiza (EH Bildu), por su parte, ha subrayado que la Diputación de Bizkaia y la Mancomunidad de Enkarterri son del mismo partido político. “El PNV no hace una apuesta firme por el desarrollo de El Karpin. Por encima de todas las excusas, subyace que no hay intención de desarrollar el parque como es debido”, ha concluido.

Tras el debate, se ha procedido a la votación de la Proposición No de Norma que ha sido rechazada al contar sólo con los votos a favor de Podemos Bizkaia y EH Bildu. Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos han votado en contra, mientras los grupos Popular Vizcaíno y Mixto se han abstenido.